

EMAKUMEEN AGERIKOTASUN ETA BALIO BERA

LEHEN HEZKUNTZA

IPUINAK ETA KONTAKIZUNAK: NOLA IZAN AMAIERA ZORIONTSUA

Ipuinak, kontakizunak, telebista serieak, marrazki bizidunak eta pelikula berrienak sarritan izaten dira antzinako **elezahar, mito, ipuinen eta horietako pertsonaia klasiko**en bertsioak, moldaketak edo bariazioak, gehiago edo gutxiago gozatuak, eguneratuak etab. Kontakizun tradizional horiek eduki eta borondate hezigarria dute modu nabarmenean.

- ▶ Arketipoek eta mitoek transmititzen dituzte egitura konplexuak diren **portaera ereduak**, harreman sozial eta pertsonalak, erantzunak egoera desberdinei eta aukera eta balio pertsonalak.
- ▶ Kontsultarako entziklopedia osatzen dute ondoko inguruan: nola **sentitu eta jardun**, nola **bizi eta izan zoriontsu** (amaiera zoriontsua izatea).
- ▶ Gizartearen memoriaren zati dira, subkontziente kolektiboan, giza herentzian eraikiak eta errotuak daude.
- ▶ **Baliagarriak** izan dira kontaktu, errepikatu eta transmititu dituzten giza taldeendako, irakasten baitute bizitzen, hobetzen, aurrera egiten etab.
- ▶ Kontakizun ederrak dira, literarioki **erakargarriak**, interesgarriak, txundigarriak, ederrak, hunkigarriak...
- ▶ Edozein tradizio bezala, batez ere ahozkoa baldin bada, ahalbidetzen dute, bizitza bezala, **"irakurketa" bat baino gehiago** eta belaunaldi bakoitzak, talde bakoitzak, "bere" irakurketa egin du, alderdi batzuk besteak baino gehiago azpimarratuz, beste alderdi batzuk kritikatzuz edo alde batera utziz, aldatuz, ixilaraziz...

Hezkidetzarako eskolak, bere kontakizunak sortzeaz gain, **genero analitiko abiatutako berrirakurketa** egin behar du eta kontakizun horiei erabilpen berria eman behar die, gure ikasleendako ipuinen estereotipoak bizi duten benetako errealitatea baino indar handiago izaten ahal dutelako.

BITZTA ESKOLA: EREDUAK ETA ERREFERENTZIAK

Ipuinek eta mitoek, kontakizun zaharrek, baita berriagoek ere, orokorrean, oso agerikoak diren alderdi androzentriko eta sexistak dituzte. Alderdi horiek antzematen ikasi behar dugu, kontziente bihurtzeko eta horiei aurre egin ahal izateko:

- ▶ **Protagonistak** dira, batez ere gizonetzkoak: printzeak, zaldunak, agente sekretuak, esploratzaileak, abenturazaleak, kazetariak, galiar menderaezinak, superheroiak, bilauak, behizainak, indiarak, gladiadoreak, soldaduak, jeneralak...
- ▶ **Emakumeen paperak** izan ohi dira, orokorrean, bigarren mailakoak,



gomendatutako ipuinak

Edozein ipuin, liburu edo film baliagarri izan dakiguke emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, genero estereotipoak, horiekiko alternatibak etab. lantzeko. Sarritan praktikoa izaten da **gaurkotasuna duten liburuak eta filmak erabiltzea** edota gure ikasleei proposamenak egiten uztea. Guztiek emanen digute aurkitzeko, hitz egiteko eta pentsatzeko aukera.

Aurrekoak abantaila batzuk eskaintzen dizkigu: bermatua dagoen motibazioa eta ikasleengandik hurbilen dagoen errealitatearen gainean lan egitea, hau da, beren eguneroko bizitzan ohikoak diren harreman ereduaren gainean lan egitea. Baina, ahalegina eskatzen du emozioetik edo istorioaren ekintzatik haratago joateko. Ahalegina hezkidetzatik irakurri edo interpretatzeko pertsonaiak eta beren harremanak, portaerak eta balioak. Irakurketa hori berdintasunetik egitea ahalbidetu duten jarduerak prestatzea eskatzen du.

jarduerak

Jarduerak egiteko ideia batzuk:

- Pertsonaiak deskribatu eta aztertzea.
- Pertsonaiak eta istorioak asmatzea.
- Izenburu alternatiboak asmatzea eta istorio horiek garatzea.
- Aldatzea ipuinak, pertsonaiak, egotzak, amaierak...

pertsonaiak aztertzea

Pertsonaia deskribatzea: itxura, nortasuna, daraman bizitza mota, bere harreman motak...

Nolakoak dira berarekin elkarrekin izan diren bestelako pertsonaiak? bada beste pertsonai nagusirik edo soilik bigarren mailakoak, nolakoak dira pertsonai horiek?

Bizitza propiorik badu? bikotekiderik? nolakoa da bere harremana?
Bada beste sexuko antzeko pertsonaiarik? zergatik? irudikatzen al dugu pertsonaia hori? nolakoa izanen litzateke? erakargarritasun eta arrakasta bera izanen luke? zergatik?

pertsonaiak asmatu

Filmetako pertsonaiak moztea, edo liburuetakoko pertsonaien zerrendak egitea eta liburu horietan dituztenaren profil desberdinak asmatzea.
Irudi desberdinak bilatzea (printzesa gerlaria, errege lorazaina...), ohikoak ez direnak (gizonezko bat haurrak zaintzen...), zalantza-koak sexuari dagokionez (ez dadila desberdindu burdinazko jantziaren azpian emakume edo gizon bat dagoen, arropa, kapa, ontzia edo hegazkina gidatzen, auto fantastikoa gidatzen, etab.) eta kontakizun bat idatzi dezatela irudi horretatik abiatuz. Kontakizunak alderatu eta ikusi protagonisten zein profil diren nagusi. Aztertu zergatik.

ipuin bat alderantziz

Ipuin iradokitzailerik edo alternatiboaren izenburuak ematea. Adibidez: Printzesa ausarta. Printzea eta ilarra. Sultana chiztaria. Errege dantzaria. Dragoi maitemindua. Dorotearen bidaiak. Irule ausarta. Zaldun koldarra. Mary Potter. James Poppins.

alternatibak

Alternatibak eman. Adibidez:

- Amabitxi maitagarriaren magiak huts egin du, egin ezazu plan bat Errauskine laguntzeko jauregiko festara joan ahal izan dadin.
- Zer eginen zenuke dorrean giltzaperatutako printzesa izanen bazina? zain egonen zinateke norbait salbatzera etortzeko?
- Zer eginen zenuke gaztelu batean giltzaperatutako printzea izanen bazina?
- Zer eginen zenuke Mulan-en kasuan gizonezko mozorrota nahi ez bazenu?
- Zer gertatuko litzateke amaordeak Edurnezuri maitasun handiz tratatuko balu?
- Zer gertatuko litzateke Errege Lehoiak ezkondu nahi ez balu ezta seme-alabarik izan ere?
- Eta James Bond-ek semea izanen balu?

protagonista nagusiaren osagarriak eta menpekoak: neskalagunak, emazteak, amak, arrebak, idazkariak, laguntzaileak, neskameak, haurtzainak, esklaboak ... emakumeak, protagonista nagusiaren lagungarri batzuetan, traba beste batzuetan, baina beti bigarren maila batean.

IPUINETAKO GIZONAK ETA EMAKUMEAK

- ▶ **Gizon aktiboak**, dinamikoak, ausartak, bortitzak... munduan misio bat behar dutenak, eta sarritan, bere lan heroikoaren sari gisa emakume bat lortzen dutenak. Etxetik urrun dauden gizonak, familiaren elkarbizitzatik kanpo daudenak, familiako gainontzeko kideendako arrotz direnak.
- ▶ **Emakume pasiboak**, etxe baten ardurarekin, eta sarritan gizon baten zain egoten dira dorrean, leihoan... emakume txukunak, garbiak, atseginak, otzanak, ameslariak... mendekoak.
- ▶ **Gizonaz mozorrotu**, emakumea izateari utzi eta gizonen eredu imitatzea, paper tradizional, pasibo eta mendeko horri ihes egiteko modu bakarra baita. Mozorro positibo eta aktiboa da, adonearen eta ahalmenaren erakusgarri.
- ▶ **Emakumez mozorrotu**, alderantziz, ezohikoa eta lotsagarria da. Halakorik ematen denean parodia eta negatiboa da: gaiztoaren mozorroa (sorgin zaharra edo "zorigaitzoko emakumea") edo irrigarriak (inauteriak...).

IPUINETAKO FAMILIAK

- ▶ **Amak** lanbide gabekoak, zaletasunik eta kulturarekiko interesik gabekoak, etxeko lanari emanak, zorigaitzak, sarritan nekatuak edo gaixorik ohean, etxeko ingurunean bizi dira.
- ▶ **Aitak** oso lanpetuak lanbideak eta abenturak direla eta, etxeko inguruntetik kanpo egon ohi dira. Eta etxean egoten direnean egunkaria irakurri eta urrutiko aginduaren bidez telebistaren nagusi dira (aferra publikoen ardura izaten jarraitzen dute). Serioak, puntualak eraginkorrak eta erabakiak hartzeko gai dira.
- ▶ **Semeak, mutilak**, aktiboak eta dinamikoak dira, baita bihurriak eta managaitzak ere, ausartak eta burugogorrek, apetatsuak, neskak baino ausardia eta protagonismo handiagoa izan behar dute.
- ▶ **Alabak, neskak**, pasiboak, garbiak eta txukunak, manaerazak eta lasaiak, sentiberak eta amultsuak, mendekoak eta ameslariak, adeitsuak eta otzanak, familiarrak.

IRUDIAK ETA ILUSTRAZIOAK, DINARRIZKO GAKOA

Lehen Hezkuntzako gure ikasleei iristen zaizkien kontakizun gehienak irudiz lagunduta doaz. Neskek eta mutilek irudi horiek imitatu, moztu, kopia egin eta egiten dituzte. Karpeta, logela, arropa eta abarretan. Jasotzen duten **ereduaren zati garrantzitsuak dira**.

- ▶ Teorian, irudi horiek laguntzen duten istorioa islatzen dute eta kontakizuna bezain estereotipatuak izanen lirateke, ez gehiago ez gutxiago.
- ▶ Praktikan, marrazkilari bakoitzak soilik bere esperientziaz eta bere mundu sinbolikotik abiatuta ilustratzen ahal du, kontakizunaren egileari "gehituz" edo "kenduz".
- ▶ Sarritan neska eta mutil txikiak ipuina jarraitzen dute eta irakurri gabe ikasi egiten dute **soilik marrazkien bidez**. Hori dela eta ipuinek garrantzi berezia hartzen dute.



KONTAIDAZU IPUIN BAT, ERAKUTSIDAZU BIZITZEN.

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

EMAKUMEAK ETA GIZONAK
NORK ZER?

hezkidetzalantzen

BEHAKETA ETA AZTERKETA: IPUINETAKO PERTSONAIAK

- ▶ **Osatu itzazu beheko taulak** pertsonaien datuekin. Bada alderik emakumezkoen eta gizonzkoen pertsonaien artean? zeintzuk? zer egiten dute emakumeek gizonzkoek egiten ez dutena? zer egiten dute gizonzkoek emakumezkoek egiten ez dutena? zergatik iruditzen zaizu hori horrela dela?
- ▶ **Ipuin bat alderantziz:** idatzi edo kontatu ezazu ipuin bat, bertan emakumezko pertsonaiak taulako gizonzko pertsonaiak bezalakoak izanen dira, eta alderantziz, zer iruditzen zaizu? itxura bera du? horrela argitaratzen ahalko litzateke? zergatik?

IPUIN, FILM, KOMIKI, LIBURU ETA ABARREKO PERTSONAIAK	Emakumeak	Gizonak
Pertsonai nagusiak.		
Bigarren mailako pertsonaiak.		
Pertsonaia positiboak edo istorioan gauzak ongi ateratzen zaizkienak.		
Pertsonaia negatiboak edo istorioan gauzak gaizki ateratzen zaizkienak.		
Beraiekin identifikatzen garen pertsonaiak.		
Beraiekin identifikatzen EZ garen pertsonaiak.		


NOLA BIZI DEN PERTSONAIA BAKOITZA. NORK ZER ERABILTZEN DU?	Emakumeak	Gizonak
Autonomia ekonomikoa, independentzia pertsonala.		
Ekonomikoki beste pertsona batzuen mendean egon beharreko bizitza.		
Familian bizitzea, beste pertsona batzuekin.		
Bizitza bakartia, noraezekoa, nomada, abenturazalea.		
Familiaren zaintza lana egiten.		
Etiket kanpoko lan ordaindua eginez.		
Eremu irekietan, eredu desberdin eta anitzetan...		
Eremu itxietan, etxean, aniztasunik gabe...		
Makinak, armak, teknologia, etab, erabiliz.		
Haurrak, zaharrak etab. zainduz.		
Zuzenduz, aginduz, manatuz...		
Obedituz, jarraibideak, aginduak, etab. betez.		
Lagunekin, kideekin...		
Borrokaturaz, joz, hilez.....		
Eraso, gatibutasun eta abarren biktima izanez.		
Protesta eginez, haserrea, hira etab. oihukatuz.		
Negar eginez, erregutuz, beldurra dela eta oihukatuz, otoitz eginez...		
Arroparik gabe, biluztuz, ikusleendako dantzatzuz...		



NERE MUNDUKO ARGAZKI ETA MARRAZKIAK

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

EMAKUMEAK ETA GIZONAK
NORK ZER?

hezkidetzalantzen

BEHAKETA ETA AZTERKETA: "IRUDI BATEK MILAKA HITZ BAINO GEHIAGO BALIO DU"

- ▶ **Osatu itzazu beheko taulak** zure testu liburu, ariketa koaderno, entziklopedia, hiztegi ilustratu eta abarretako pertsonen datuekin. Bada alderik gizon eta emakumeen artean, zein? nola islatzen dira bertan emakumeak eta ez gizonak? nola islatzen dira bertan gizonak eta ez emakumeak? zergatik?
- ▶ **Marrazki bat alderantziz:** marraztu ezazu irudi edo komiki bat non emakumeak agertuko diren taulako gizonak bezala eta alderantziz. Zer iruditzen zaizu? gauza bera adierazten al du? posible litzateke horrela argitaratzea? zergatik?

TESTU LIBURU, KARTEL ETA ABARRETAN AGERTZEN DIREN PERTSONAK.	Emakumeak	Gizonak
Kapitulu guztietan, bildumaren liburuetan... errepikatzen diren pertsonaiak.		
Aldizka agertzen diren pertsonak.		
Izena duten pertsonak.		
Izenik EZ duten pertsonak.		
Egiten dutenagatik agertzen diren pertsonak (lana, arrakasta, albistea...).		
Direnagatik agertzen diren pertsonak (ama, aita, zaharra, neska...).		
Bakarrik agertzen diren pertsonak.		
Beste pertsona batzuekin agertzen diren pertsonak, taldean.		
Pertsona zehatzak, beren kargua, izena, saria eta abarreatatik ezagunak.		
Pertsona anonimoak, ezezagunak gehienendako.		

ZER DELA ETA AGERTZEN DA PERTSONA BAKOITZA?	Emakumeak	Gizonak
Ezer bereziagatik.		
Aginduz, zuzenduz, antolatuz... agertzen diren pertsonak.		
Obedituz, zerbitzatuz... agertzen diren pertsonak.		
Ikasten, beren burua prestatzen... agertzen diren pertsonak.		
Lantegi, tailer, bulego eta abarretan lanean agertzen diren pertsonak.		
Etxean lanean, janaria prestatzen, lisatzen... agertzen diren pertsonak.		
Makina, aparatu, ibilgailu eta abarrekin agertzen diren pertsonak.		
Poltsa, gurdi, erosketa, opari eta abarrekin agertzen diren pertsonak.		
Hurrekin, pertsona eriekin... agertzen diren pertsonak.		
Atsedena hartzen, sofan, etzaulkian... agertzen diren pertsonak.		
Dibertitzen, jolasean, dantza egiten... agertzen diren pertsonak.		
Irakurtzen, musika entzuten, zineman... agertzen diren pertsonak.		
Ariketa fisikoa, kirola etab. egiten agertzen diren pertsonak.		



IPUN, JOLAS, FILM ETA ABAR MUNDU BAT



IPUINAK. ZEIN DA ZEIN?

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana


hezkidetzalantzen

EMAKUMEA ALA GIZONA? ▶ Ezkerrean ipuin baten zati bat irakurtzen ahal duzu. Idatzi ezazu ezkerrean zure ustez protagonista emakumea ala gizona den eta adierazi zergatik uste duzun hori.

IPUINAREN ZATIA	Gizon/Emakume	Zergatik?
"Erregearen soldaduak sartu zirenean inoiz egin zuen alfonbrarik ederrena bukatzen ari zen".		
"Pieza guztiak desmuntatu zituen, banaka garbitu, koipeztatu eta berriro muntatu zituen ordenari jarraiki. Ondoren etengailuari eman zion. Motorra gozo-gozo piztu zen".		
"Goiz guztia eman zuen negarrez. Erabaki zuen ordua zela ontziratzeko eta bere sorterrira itzultzeko".		
"Inoiz ez zitzaion hainbeste kostatu banku baten segurtasun-sistema informatikoa programatzea. Hilabeteetako lanaren ondoren bukatu zuen. Orduan..."		
"Umore txarrez itzuli zen. Dantza egitera atera zen lagunekin. Ez zitzaion gustatzen dantzan aritzea eta gainera oso berandu egin zitzaion".		
"Izaki urdin horiek oso ausartak ziren eta irri asko egiten zuten, hitz egin gabe ulertzen zuten elkar eta ematen zuten ez zirela inoiz nekatzen, beren indarra izugarria zen".		
"Ia ez zen inoiz bertatik ateratzen. Bere bizitza guztia sekretu bat zen. Bere edertasuna gaindiezina zen".		
"Ez zen bere albotik urrundu sukar handien izan zuen lau egunetan, zauriak zirela eta, dardarka eta eldarnioka zebilean, bizitzaren eta heriotzaren artean borrokan ari zenean".		

LABURPENA EGIN IKASGELAKO ERANTZUN GUZTIEKIN

- ▶ Neskak eta mutilak bat etorri zarete erantzunetan? zeinetan bai eta zeinetan ez? zergatik?
- ▶ Zein datu erabili duzue emakumea edo gizona zen erabakitzeko? zeinetan egin duzue bat? zer dela eta ziren datu ziurrak?
- ▶ Gizona izan liteke emakumea dela esan duzuen kasuetako batean? nolako gizona izanen litzateke? halako gizonik bada?
- ▶ Emakumea izan liteke zen gizona dela esan duzuen kasuetako batean? nolako emakumea izanen litzateke? halako emakumerik bada? ipuinetan ateratzen dira? zergatik?




BAZEN BEHIN ...-AREN MUNDUA

IRUDIKATZEKO,
HEGAN EGITEKO IPUIN AZAL BAT

ARTURO HANDIA

► Irakurri testua eta egin itzazu bi ipuin hauen azalen marrazkiak. Marrazkiak ikasgelan ikusgai jarri eta iruzkina egin. Erraza edo zaila izan da? Ipuin arraroak al dira? ederrak dira? zergatik?




ARTURO oso gazte zen errege izendatu zutenean. Nobleek zalan-tzak zituzten ea errege ona izanen ote zen, ez baitzuen inoiz beraiekin torneotan parte hartu. Jauregiko lorategian orduak ematen zituela esaten zuten, eta isilpeka "Errege lorea" deitzen zuten.

Eta hala zen, Arturok ordu asko ematen zituen baratzean, haziak eta ureztatze sistemak hobetuz, ondoren erresuma guztian erabiltzen ziren hobekuntza horiek. Baserriz-baserrri ibiltzen zen eta ezagutzen zituen soro eta fruta-arbol bakoitza eta horiek zaintzen zituzten pertsonak. Pixkanaka bi uzta lortu zituzten bat beharrean eta jendearen bizitza inoiz baino gehiago hobetu zen. Hori dela eta, "Handia" deitzen zuten.

SORGIN AUSARTA

► Marraztu azal bat ipuin honetarako.

LOREBELTZ deitzen zuten ile beltz, liso, distiratsu eta ederra zuelako. Oso aditua zen astronomian, botanikan eta matematikan. Jende askok jotzen zuen berarengana sendagai bila. Behin guda bat izan zen eta erregea eta bere armada borrokan hil ziren. Armada erasotzailea hirira hurbiltzen ari zela jakiterakoan askok ihes egin zuten. Lorebeltzak defentsa antolatu zuen eta presak eta dikeak erai-ki zituen hurbileko mendietan. Armada erasotzailea hirira hurbildu zenean uholde handi batek garai-pena eta askatasuna eman zion sorgin ausartaren hiriari.





IPUINEN MUNDU BAT

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

IZENBURUAK ETA
PROTAGONISTAK, GEZUR HUTSA?hezkidetza **lantzen**

IZENBURUAK NESKEKIN ETA IZENBURUAK MUTILEKIN

▶ Idatz ezazu laukitxo bakoitzean emakume batekin eta gizon batekin oroitzen dituzun izenburuak. Adibidez: "Edurnezuri" eta "Jostuntxo ausarta".

▶ Egin ezazue zerrenda bat ikasgelako mutil guztien artean, alde batetik, eta beste zerrenda bat ikasgelako nesken artean, bestetik. Zerrendak alderatu. Neskek bai, baina mutilek oroitzen ez duten izenbururik bada? Nesken izena duten izenburuak dira? Eta alderantziz, mutilek bai, baina neskek oroitzen ez duten izenbururik bada? mutil izena duten izenburuak dira?

▶ Elkartu itzazue bi zerrendak. Izenburu gehiago dago neska izenarekin edo gizon izenarekin? zergatik? garrantzitsuagoak al dira mutilek egiten dituzten gauzak? neskek ez al dituzte gauzarik egiten?



Four sets of horizontal dashed lines for writing, corresponding to the woman illustration on the left.

Four sets of horizontal dashed lines for writing, corresponding to the man illustration on the right.





BAZEN BEHIN... MUNDUA. NIRE MUNDUA

BAZEN BEHIN...
MUNDU BAT ALDERANTZIZ

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetza **lantzen**

HAMAR IPUIN ALDATUTA

► Bila itzazu hamar ipuinen izenburuak (hiru bertikalak eta zazpi horizonta-
lak) hitz zopa honetan. Alderantziz dauden ipuinak dira. Adibidez "Aladina" "Aladin" beharrea. Idatz itzazu
behean ipuinen beste hiru izenburu protagonisten sexua aldatuta. Adibidez: "Hamelngo neska xirularia".

S O R G I N E D E R R A T K S L
 A N T E S D O N O F T I A A V A
 A M A O R D E O N A N U C T E M
 A N T I G U O M O D E R O U N O
 F A A L A D I N A G O I L N C D
 I F A L L A L I Z R R O E E O I
 T F K A L I A S T E C A H S J R
 A O B O D R U Ñ A S T U O K E U
 S U S A N J O N E S R U I A R L
 E A R U D T A A H U I Q E B S E
 A N D E R A R T U W A L R O A A
 P A Q U I Z E A R O P A R T T U
 A N A B E L D U R G A B E A A S
 C A B E Z I R E A V E R G D R A
 M A R Y P O T T E R C H I U D R
 B A R A M A O J A Y E O N N E T
 M E V A S T I L T O N A A A S A

beste
izenburu
aldatuak:



BAZEN BEHIN... MUNDUA. NIRE MUNDUA

BAZEN BEHIN...
MUNDU BAT ALDERANTZIZ

Hezkuntza

2009-2011 Berdintasunerako Plana

hezkidetza **lantzen**

HAMAR IPUIN ALDATUTA

► Bila itzazu hamar ipuinen izenburuak (hiru bertikalak eta zazpi horizonta-
lak) hitz zopa honetan. Alderantziz dauden ipuinak dira. Adibidez "Aladina" "Aladin" beharrea. Idatz itzazu
behean ipuinen beste hiru izenburu protagonisten sexua aldatuta. Adibidez: "Hamelino neska xirularia".

S	O	R	G	I	N	E	D	E	R	R	A	T	K	S	L
A	N	T	E	S	D	O	N	O	F	T	I	A	A	V	A
A	M	A	O	R	D	E	O	N	A	N	U	C	T	E	M
A	N	T	I	G	U	O	M	O	D	E	R	O	U	N	O
F	A	A	L	A	D	I	N	A	G	O	I	L	N	C	D
I	F	A	L	L	A	L	I	Z	R	R	O	E	E	O	I
T	F	K	A	L	I	A	S	T	E	C	A	H	S	J	R
A	O	B	O	D	R	U	Ñ	A	S	T	U	O	K	E	U
S	U	S	A	N	J	O	N	E	S	R	U	I	A	R	L
E	A	R	U	D	T	A	A	H	U	I	Q	E	B	S	E
A	N	D	E	R	A	R	T	U	W	A	L	R	O	A	A
P	A	Q	U	I	Z	E	A	R	O	P	A	R	T	T	U
A	N	A	B	E	L	D	U	R	G	A	B	E	A	A	S
C	A	B	E	Z	I	R	E	A	V	E	R	G	D	R	A
M	A	R	Y	P	O	T	T	E	R	C	H	I	U	D	R
B	A	R	A	M	A	O	J	A	Y	E	O	N	N	E	T
M	E	V	A	S	T	I	L	T	O	N	A	A	A	S	A

beste
izenburu
aldatuak: